

/ Nabarmenezkoak

- > Zabalik 2024-2025 ikasturterako Hezkuntzako gastu orokorretarako laguntzak eskatzeko epea (2. or.)
- > Dantza eta antzerki ikuskizunak asteburu honetan "Getxo Eszena" jardunaldietan (4. or.)
- > Udalak datorren udan berriro jarriko du aldagela inklusibo bat (4. or.)



Kontzertua. Hilaren 18an, ostirala, 21:00etan, Muxikebarrin, Varry Braba taldeak "Sharipop" diskoa aurkeztuko du. 25€.

Dokumentala. Hilaren 19an, larunbata, 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Las casas baratas de Romo" dokumentalaren proiektzioa (gaztelaraz) Teresa Lavinaren eskutik.

**A-
GENDA**

Gailu digitalen erabilera goiztiarraren arriskuei buruzko jardunaldia Romo Kultur Etxean

Gailu digitalen erabilera goiztiarraren arriskuei buruz hainbat adituk eta inguruko esperientziak ahalbideratuko dituzten hausnarketarako, sentsibilizatorako eta kontzientzia hartzeko gunea eskaintzea izango da *Adingutxikoak eta osasun digitala* jardunaldiaren helburua. Hori Udalak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, urriaren 26rako, Romo Kultur Etxean.

Familiei eta profesionali zuzendutako jardunaldiak pantailen eta gailu teknologikoen erabilera masiboaz kontzientziatzen lagundu nahi du, pornografiarekin edo indarkeriarekin lotuta sarean kontsumitzen diren edukiei buruz hausnartzeaz gain. Sare sozialetan bizitza pribatuaren gehiegizko esposizioari buruz ere hitz egingo da, horrek gazteengan segurtasun- eta jazarpen-arazoak, eta osasun psikologikoari eta emozionalari eragiten baitizkie. Hitzaldi eta esperientzia ezberdinen bidez, teknologiak identitatearen



eraketan eta trebetasun sozialetan nola eragiten duen hausnartuko da, mundu digitalaren eta fisikoa- ren arteko oreka osasuntsua aurkitzen saiatzeko, aro modernoan nerabezaroaren garapen integrala bermatze aldera.

Egitaraua

9:30ean ongietorri instituzionalaren ondoren, 9:45etik 11:00etara, Telmo Lazkanok *Troiako zaldi berria* hitzaldia eskainiko du. 11:00etatik

12:00etara, hainbat esperientzia ezagutuko dira hurrengo eskuetatik: Mirene Beriain, Ander Deuna ikastolako Altxa Burua taldeko ordezkariak *Altxa Burua saretzen*. *Indarrak batuz!*, Sopolako ikastolaren esperientzia azalduko du; Elena Cruzek Azkorri ikastetxearen esperientziak hitz egingo du eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotzia Udaleko Prebentzio Zerbitzuaren ibilbideaz.

Atsedenaldiaren ostean, 12:30ean *Adikzioa, ziberbullyinga eta pornografiari buruzko mahaingurua* izango da. Horretan Iragartze Garairen gaia *Nerabeak eta jokabide-adikzioak: mugikorrak, jokoa eta pantailak*. *Esku-hartzea eta tratamendua genero-ikuspegiarekin* izango da; Saioa Magunazelaiarena *Ziberbullyinga, zer da? Zelan prebenitu?*, eta Raúl Marcosena *Aro digitaleko pornoa: erotika klik batean*. Azkenik, 14:15etik 14:30era ondoioen tarterako izango da. Solasaldi batzuk gaztelaraz izango dira eta beste batzuk euskaraz. Interpretazio-zerbitzua eta beste zerbitzu-osagarriak izango dira, aurretiko izenematearekin. Jardunaldirako oako izena emateko epea datorren urriaren 22an amaituko da, edukiera mugatua baita. Pertsona interesatuek inskripzioa 944 660 151 telefono zenbakiaren edo gizartez@getxo.eus helbide elektronikoaren bidez egin ahal izango dute.

Ramiro Pinillaren literatur lanari buruzko Nazioarteko Biltzarra egingo da Muxikebarrin

Urriaren 23an eta 24an, Ramiro Pinilla idazle getxotarraren literatur lanaren adituentzako topagune bihurtuko da Muxikebarri. Letren estatuko panoraman erreferentzia izan zenaren heriotzaren hamargarren urteurrenarekin batera, ekimen hau garatuko da, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Paueko eta Orleanseko Unibertsitateek antolatuta. Zentro horietako irakasleaz gain, Deustuko Unibertsitateko, Madrilgo Complutenseko, Bartzelonako Autonomoko, Alcanteko, Lisboako, Costa Ricako, Artoisko (Frantzia) eta Parisko La Sorbona eta Cergy unibertsitateetako irakaskuntzako profesionalak



ere parte hartuko dute, baita Bigarren Hezkuntzako Francisco de Orellana (Caceres) eta Melchor de Macanaz (Albacete) ikastetxeek ere. Jimena Larroque irakaslearen zuzendaritzapean, adituak eta Pinillaren lanean adituak diren pertsona ugari bilduko dira biltzarrean, bere lanaren alderdi berezi eta aldi berean unibertsitatean sakonduko dutenak. Horretarako, askotariko programa diseinatu dute, besteak beste, literatura-mahaiak, hitzaldiak, eta mahai-inguruak. Sarrera doan izango da, lekua bete arte. Inaugurazio-jardunaldia, hilaren 23an, asteazkena, hiru gai-multzotan egituratuko da: *La ética de*

los desposeídos, *Allende los mares*, *conexiones intertextuales* eta *El espacio en territorio Pinilla*. Bi mahai-inguru ere izango dira. Bigarren eguna, hilaren 24a, *Los desastres de la guerra* memoria historikoaren ingurukoa izango da idazlearen literatur lanean. Egilearen testu argitaragabeen proiektzioa eta irakurketa izango da. Amaiera ekitaldia Naiel Ibarrola ilustratzaile eta musikariak egingo du eta Gustavo Iduriagak ibilbide literario bat gidatuko du, non Getxoko leku esanguratsuenetako batzuk zeharkatuko diren Pinillaren obran.

Egitaraua: www.getxo-kultura.eus



URRIAK 10 OSTEGUNA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Dantza. Muxikebarrin, 19:30ean, "Tierra de nadie" Eva Guerrerorekin. Sarrera: 10€.

Txatxarrak. 19:30ean, Romo Kultur Etxean, Garazi Basterretxeak gidatuta, testuak sortzeko tailerra. Egizuk antolatuta.

URRIAK 11 OSTIRALA

Kontularien Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea. Gaztelera.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 19:30ean, "Artea" (euskaraz), Ramón Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormazarekin. Sarrera: 10€.

URRIAK 12 LARUNBATA

Getxo Eszena kalean. Antzerkia. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "La kermés del vermú" Gorakada Teatrorrekin. Sarrera dohainik.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Dantza. Muxikebarrin, 20:00etan, "Mosaique" Malandain Ballet Biarritz taldearekin. Sarrera: 20€.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan,

"Donde rompen las olas" jazz-pop diskoaren aurkezpena Malú Garay, Jose Luis Canal, Raúl Vera, Rober Caballero eta Blas Fernándezekin. Sarrera: 5€.

Kontzertua. 20:15ean, Algortako Trinitarioen elizan, "Zozoak Abesbatza" (Getxo) eta "Coral Torrelblanca" (León) taldeen emanaldia. Sarrera dohainik.

Dantza plaza. 18:30etan, Santa Eugenia plazan, herri-romeria tokiko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Ixtartu, Ixtas Argia eta Zasi Eskola.

XLI. Ibilaldi neurtua. Irteera Algortako batzokitik. 08:00etan (nagusiak); 10:00etan (gazteboak, 10 urtetik beherakoak). Antolatzailea: Ixtartu Taldea. Info: <https://labur.eus/XNh16>

URRIAK 13 IGANDEA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 19:00etan, "La comedia de los errores" Pepón Nieto, Antonio Pagudo, Fernando Soto, Rulo Pardo, Avelino Piedad eta Esteban Garridoekin. Sarrera: 20€.

URRIAK 14 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Urdaibai: un futuro incierto". Hizlaria: Eider Gotxi (SOS Gaztelugatxe eta Guggenheim Urdaibai Stop partaidea). Antolatzailea: Sínope Kultur Elkarte. <https://sinope.blog.wordpress.com/>

URRIAK 16 ASTEAZKENA

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "La novela del espía"ren aurkezpena egilea Irati Elorzaren eskutik. Gaztelera.

URRIAK 17 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean (liburutegia), "Sorgin barregarriak" (euskaraz) Ana Apikarekin.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Dantza. Muxikebarrin, 19:30ean, "Los perros" Led Silhouettearekin. Sarrera: 8€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean, "Las hipotecas inversas". Hizlaria: J.A.G. Cenzano (ekonomialaria).

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Hitzaldia. 19:30ean, Aldai Patronatua (Karitatea 1, Algorta), "Gure inguruko perrebiko jangarriak eta toxikoak". Hizlariak: Pepelu Ugartxe eta Txema Casillas. Sarrera dohainik. www.basozaleak.com

URRIAK 18 OSTIRALA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 19:30ean, "Emakume baten borroka eta metamorfosia" (euskaraz), Eneko Sagardoy, Eva Trancón eta Vito Rogado. Sarrera: 8€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Varry Braba taldeak "Sharipop" diskoa aurkeztuko du. Sarrera: 25€.

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Hitzaldia. 19:30ean, Aldai Patronatua (Karitatea 1, Algorta), "Mikologiaren hastapenak". Hizlaria: Zigor Ugartxe. Sarrera dohainik.

URRIAK 19 LARUNBATA

Dokumentala. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Las casas baratas de Romo" dokumentalaren proiektzioa (gaztelera) Teresa Lavinaren eskutik. Sarrera dohainik.

Getxo Eszena kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Pausa" niMú taldearekin. Sarrera dohainik.

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "El alcalde de Zalamea" (gaztelera) Teatro Corsarioarekin. Sarrera: 10€.

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Irteera. 09:00etan, perrebikoak biltzeko irteera. Arratsaldean, jasotako sailkatuko da Aldai Patronatua.

URRIAK 20 IGANDEA

Getxo Eszena. Arte Eszenikoak Jardunaldiak. Haur antzerkia. Muxikebarrin, 16:30 eta 19:00etan, "Ez gara jaitsiko" (euskaraz) Porrotx eta Marimototsekin. Sarrera: 6€.

Halloween edition. Romo Kultur Etxean, 10:00etatik 20:30ak arte, mahai-jolasak, marrazketa-tailerra eta adin guztizko jarduerak. Antolatzailea: Kimera Elkarte. Informazio gehiago sare sozialetan: @asociacionkimera

XXXIV. Jardunaldi Mikologikoak. Erakusketa eta dastaketa. 11:00etan, San Nikolas plazan. Perrebikoak sailkatezko txapelketa (16 urtetatik beherakoentzat).

Zabalik 2024-2025 ikasturterako Hezkuntzako gastu orokorretarako laguntzak eskatzeko epea



tatzeko duen zeregina, hezkuntzari balioa emanez".

Baldintzak

Onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Familia-unitateko pertsona guztiek Getxoko udalerrian erroldatuta egon beharko dute etenik gabe 2024ko urtarrilaren 1etik Aurrera eta helbide berean.
- Bigarren zikloko Haur Hezkuntzatik (hiru urte) DBHko mailara bitarteko seme-alabak izan beharko dituzte eskolatuta.
- Beren seme-alaben eskolatzeko egokia bermatzeko konpromisoa adierazi beharko dute, eta, horretarako, irakasleek, ikastetxeetako organoek eta hezkuntza-administrazioek egiten dizkieten eskakizunak bete beharko dituzte.

Eskabideak, ahal dela, Bulego Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, www.getxo.eus orrian. Ezinezkoa den kasuetan, Herritarren Arretarako Bulegoetan entregatu ahal izango da.

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak laguntza horien garrantzia azpimarratu du, "familientzako laguntza ekonomikoa direlako. Baliabide ekonomikorik ez izateak ez du oztopo izan behar hezkuntza bezalako oinarriko zerbait eskuratzeko orduan. Horrelako neurriek indartu egiten dute Udalak familia guztien arteko berdintasuna sus-

- Familia-unitateko kide guztiek egunean izan beharko dituzte Getxoko Udalarekiko, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- Ez dute baliabide ekonomiko nahikorik izango. Familia-unitatearen urteko guztizko diru-sarrera gordinak, 2023an, ezin izango dira 60.480 eurotik gorakoak izan (2023. urteko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoa 1.080 € hileko). Gehieneko muga hori familia-unitateko kide-kopuruaren arabera haztatuko da.


FAMILIA-UNITATEKO KIDE-KOPURUA	DIRU-SARREREN GEHIENENKO MUGA
2	63.663€
3	67.200€
4	71.153€
5	75.600€
≥ 6	80.640€

FAMILIA BAKOITZEKO DIRU LAGUNTZA		
	Lehen eta Haur Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
Kopurua seme alaba bakoitzeko	100 €	150 €

Getxoko saltoki berriek irudi digitala hobetuko dute

Getxoko beste 10 negozio txikik (dagoeneko 50 dira) bat egin ahal izango dute GetxoEnpresaren ekimenarekin, adituen eskutik kalitate handiko material grafikoa eta bereizgarria sortzeko, online irudia modernizatu eta

berritu ahal izateko. Hobetu zure online irudia. *Kalitatezko edukia sortu* ekimenaren laugarren edizioa da, Eusko Jaurlaritzaren babesa du eta aholkularitza eta argazki-saioak Asier Gómez Studiok egiten ditu.



Saria Palacio Arriluce Hoteleko upategiarentzat

"Palacio Arriluce Hotel" bost izarreko hotelak, Ostatu atalean, saria jaso du *Best Of Wine Tourism 2025* sarietan, upeltegiaren proiektuagatik, kultura enologikoa gurtzeko gune gisa sortutako espazioagatik. "Jatorri-deitura askoren luxu botilatua nabarmentzen du, eta horrek ingurune ezin hobea sortzen du ardo maitate duten pertsonentzat. Talde txikien dastatze eta ekitaldi pribatuak egiteko agertoki ezin hobea eskaintzen du, esperientzia eskusibo eta pertsonalizatua eskainiz".

Eskolaz kanpoko euskarazko eskaintza

Eskola orduz kanpoko haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza duten zentroyen eta familien arteko zubi-lana egiten duen *Hazi eta hezi*, kanpainak euskarazko heziketa ahalbideratzen duen informazioa eskainiko du aurten berriro. Horretarako, Udalak online bidezko gida bat prestatu du aipatutako eskaintza duten 33 zentroyen informazioarekin, horien artean, aholkularitza psikopedagogikoa, eskola laguntza, euskara, musika, pintura eta eskulanak, informatika, sukaldaritza, dantza, antzerkia eta zirkuak.

Udalak zabaltzen lagunduko du, ikastetxeetan, 25 liburuxka, 2.000 postal (eskaintzari buruzko informazioa eskaintzen duen QR kodearekin), 100 kartel orokor eta zentro kolaboratzaileen 33 kartel pertsonalizatuaren bidez. Informazio gehiago: www.getxo.eus/euskara

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Dantza eta antzerki ikuskizunak asteburu honetan "Getxo Eszena" jardunaldietan

Muxikebarrin *Getxo Eszena* Arte Eszenikoen Jardunaldiak egiten jarraitzen dute, eta asteburu honetan dantza- eta antzerki-ikuskizunak eskainiko dituzte publiko guztientzat.

Ostegunean, hilak 10, Eva Guerrero dantzariaren *Tierra de nadie* ikuskizunaren ostean, hilaren 11n, ostirala, Ramón Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza aktoreen txanda izango da, *Artea* umore adimentsuko euskarazko saioarekin. Koadro garaikide bat da hiru lagunaren arteko eztabaida ikeragarri baten erruduna. Ikuskizunak aurrera egin ahala, pinturaren inguruko desadostasuna areagotu egiten da, eta protagonisten arteko benetako etsaitasunak azaleratzen dira. 19:30ean hasiko da eta sarrera 10 eurokoa da.



Larunbatean, hilak 12, 20:00etan, Malandain Ballet Biarritz taldeak *Mosaïque* ballet neoklasikoa taularatu du, Mozart, Saint-Saëns, Chopin eta Tchaikovskyren musikarekin

elkartzen diren garai, forma eta tonuen mosaiko batekin. Sarrera: 20€.

Igandean, hilak 13, 19:00etan, *La comedia de los errores* obraren txanda izango da, Pepon Nieto, Antonio Pagudo, Fernando Soto, Rulo Pardo, Avelino Piedad eta Esteban Garridorekin. Shakespearearen testuaren egokitzapen aske eta dibertigarria da. Bertan, bi anaia biki eta bi zerbitzari nortasun-nahaste zentzugabe batean bizi dira. Sarrera: 20€.

Musika eta antzerkia "La kermés del vermú"rekin



Areetako Geltokia plazan *La kermés del vermú* antzerki eta musika emanaldia izango da larunbat honetan, hilak 12, 18:30ean. Sarrera doakoa izango da.

Lau musikaririk eta aktore eta abeslari batek, Gorakada Teatrokoak, kalez kale hurbilduko digute hitzontzi ibiltarien eta salezinaren saltzaileen mundua. Hori guztia hainbat genero eta garaitako musikaren erritmoan: boleroak, tangoak, pasodobleak, swinga... Dantzaldi-lehiaketa ere izango da, bikote-aldaketarekin eta askotariko jokoekin.

Mikologia Jardunaldiak urriaren 17tik 20ra

Basozaleak Getxoko Mikologia eta Botanika Elkarteak Mikologia Jardunaldien hogeita hamar garren edizioa antolatu du, eta aurten lau egunez jarraian egingo dira.

Programa hilaren 17an, ostegunean, hasiko da, Pepelu Ugartetxe



eta Txema Casillasen *Gure inguruko perretxiko jangarriak eta toxikoak* hitzaldiarekin. Ondoren, hilaren 18an, ostirala, *Mikologiaren hastapenak*, Zigor Ugartetxerekin (biologoa eta mikologian aditua). Biak 19:30ean izango dira, Aldai Patronatuan (Karitate kalea 1).

Larunbatean, hilak 19, 09:30etik 13:00etara, irteera tradizionala egingo da Getxon eta inguruetan, espezieak biltzeko. Arratsaldean, Aldai Patronatuan sailkatuko dira. Eta igandean amaiera emango zaie jardunaldiei, Algortako San Nikolas plazan, 11:00etatik 14:30era, eta 16 urtetik beherakoentzako Espezieen Identifikazio Lehiaketarekin.

Malu Garayk bere disko berria aurkeztuko du

Malú Garay abeslariak jazz-pop kontzertua eskainiko du larunbatean, hilak 12, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Bertan, *Donde rompen las olas* disko berria aurkeztuko du, konposizio eta sorkuntza propioa 9 abestiz osatutako lan originala. Errezitaldia 19:30ean hasiko da eta bertan honakoak izango ditu lagunak: José Luis Canal (teklatuak), Raúl Vera (gitarra), Rober Caballero (baxua) eta Blas Fernández (bateria). Sarrera: 5€.

Egizuren jarduerak

Ikasturtearen etorrerakin, EGIZU elkarteak euskara sustatzeko bere ohiko jarduerak jarri ditu martxan. Horien artean daude yogaren, egur-tailuaren eta dantzen tailerrak, irakurketa eta Berba laguna taldeak, eta familientzako tailerrekin eta jarduekin batera (Sendi). Informazioa eta izenemateak: <https://egizu.eus>

Erakusketa "Emakume ekintzaileak ardogintzan" Bentan

Benta auzogunean izango da urriaren 31ra arte Eltzegoko (Araba) Jesús Fernández Ibañez ikertzailearen *Emakume ekintzaileak ardogintzan* izeneko erakusketa. Erakusketa asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan bisita daiteke, 18:00etatik 20:00etara. XVI. eta XIX. mendeen artean ardoaren munduari lotutako lau emakumeren bizitza jasotzen duten 21 panelek osatzen dute: Te-

resa La Portilla, Nicolasa Collante Estrada, Marceliana Hurtado de Amezaga eta Tomasa Guinea. Bere testigantzek aitzakia gisa balio dute bizi ziren garaia nolakoa zen, ohiturak, egoera politikoa, ekonomikoa... azaltzeko, baita ardoari lotutako ondarea aztertzeko ere.



"Llegaremos a la vez", Ramiro Pinilla eleberri laburreko saria 2023

Ignacio Lloret Villota idazleak, *Ramiro Pinilla 2023* eleberri laburreko sariaren irabazleak, Romo Kultur Etxea eta Algortako (Villamonte) liburutegiak bisitatu ditu bere lana jendaurrean aurkezteko. Eleberri honek tren batetik artekari batenganako bidaiariaren erakarpin obsesiboaren istorioa kontatzen du, denbora gairatzen duena

eta protagonistaren joan-etorrietan gertatzen dena. Lehiaketako epaimahaiaren arabera, "tramaren garapenak jendea harrapatzen du pertsonaiak mugitzen diren trenetan ontziratzeraino. Pertsonaiak, espazioak eta giroak eraikitzeagatik nabarmentzen da, denbora narratiboaren erabilerarekin ondo lotuta".

Udalak datorren udan berriro jarriko du aldagela inklusibo bat

Udako hilabeteotan Ereagako pasealekuan zerbitzuan izan den aldagela inklusiboa berriro jarriko du datorren udan Udalak, hondartzen denboraldi ofizialaren amaierara arte izan den esperientzia pilotuak eduki duen harrera onaren ondoren.

Aldagela Inklusiboak Koordinatze-ko Elkartearen (ACCI) laguntzarekin, Udalak kokatuta, aldagela inklusiboaren helburua da pertsona guztien duintasuna eta pribatutasuna errespetatzea; izan ere, jardura pertsonalak egitea, hala nola pixoihalak aldatzea edo beste behar berezi batzuk egitea esperientzia deseroso eta lotsagarria ez izatea ziurtatzen duelako, komun bat era erraz, autonomo eta duinean erabili ahal izateko beharrezkoak diren oinarriko tresnak erraztuz.

Higienean laguntza-premia handiak edo konplexuak dituzten eta laguntzeko bi pertsonaren arteko beharra duten herritarrentzako aldagela inklusiboak 345 erabile-



ra izan ditu, erabilpen handiagorekin abuztuan, bigarren astean 46rekin eta hondartzara pertsona gutxi hurbiltzea eragin zuten tenperatura baxuko asteetan erabilpen gutxiagorekin. "Zerbitzuaren erabilera orokorrak erakutsi du espazio horiek gero eta gehiago onartzen direla, eta, beraz, funtsezkoa dela horien erabilera sustatzen jarraitzea, erabiltzaile guztiak eroso eta ondo zainduta senti daitezkeen bermatzeko",

nabarmendu du Janire Ocio, Azpiegitura, Lan eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Bestalde, mugikortasun murriztua duten erabiltzaile batzuek beren iritzia eman dute eta instalazioa eskertu dute "bizitza errazagoa eta erosoagoa egin digulako; aldatzeko eta gure beharrak duintasunez egin ahal izateko baldintza egokiak eskaini dizkigulako, erabilera bikain eta uler-

terrazarekin. Pribilegio bat izan da Ereagan zerbitzua izatea".

Aldagailua 6 x 2,5 metroko modulu bat izan da, sartzeko arrapalarekin, eta altueran erregula daitekeen ohatila bat, sabaiko garabi bat, dutxako eserleku bat, ostomizatutako pertsonentzako komun bat, eta altueran erregula daitezkeen konketa eta komunitziarekin.

Ondoan, adikzioei buruzko aholkularitza udal Zerbitzu berria

Substantzia edo substantziarik gabeko adikzioekin lotutako gaiekiko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea izango da Udalak urriaren 16tik aurrera abian jarriko duen Ondoan udal Zerbitzu berriaren helburua. Zerbitzua izango da esperientzia pertsonalak edo hurbilei buruz kontsultatu nahi dituzten edo mendekotasuna gainditzeko prozesuetan sartu behar duten 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzat; seme-alaben portaeren aurreko orientazioaren beharra duten edo gainezka egin da dauden familientzat, eta droga kontsumoarekin, jokoarekin, Interneten erabilerarekin, mugikorrarekin eta abarrekin arazoak dituzten helduentzat. "Hausnarketarako eta



laguntzeko espazioa eskaini nahi dugu adikzio-jokabideek eragindako edozein egoeratan, aholkularitza, aurre egiteko baliabideei buruzko orientazioarekin batera, eta behar izatekotan profesionalekin eta entitateekin lankidetzan aritzea ere. Zerbitzua ez da prozesu terapeutiko bat izango", azaldu du Carmen Díaz, Gizarte Kohesioko zinegotziak.

Adikzioen Udal Zerbitzuko teknikariak artatuko du doako Zerbitzu berria, aurrez aurre asteazkenetan, 14:00etatik 17:00etara Urgull kaleko udal eraikineko bigarren solairuan, eta WhatsApp edo telefono bidez, 688 72 73 46 zenbakian, astelehene ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago: <https://labur.eus/VjCkj>

Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren proiektzioak

Larunbatean, urriak 12, XVI Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, Film Sozialak izenekoaren bost proiektzio ikusi ahal izango dira Muxikebarrin. Jaialdia KCD GKEak antolatzen du, hainbat entitateren laguntzarekin, tartean Udalarena. Ohi bezala, Aixerrota eta Romo-Artaza, eta lehenengo aldiz Julio Caro Baroja institutuek parte hartuko dute Jaialdian, hainbat jardueraren bidez.

Tokia bete arte doako sarrera izango duen saioa 19:00etan hasi-



ko da, Eskuz Esku abesbatzaren partaidetzarekin. Proiektzioak hurrengoak izango dira: *Write my name*, *Zaintzen duten emakume baserritarrak*, *Europa*, *Las Desheredadas* eta *Ejecuciones extrajudiciales en Colombia*.

Argia Fundazioak "donaCCiones" jarri du martxan

Gaixotasun mentala diagnostikatuta duten pertsonen eta beren familiei laguntzen dien Argia Fundazioak *donaCCiones* ekimena abiarazi du gizarte-proiektuei laguntzeko eta mezenasgoa sustatzeko. Plataforma berritzaile horren helburu nagusia da baliabideak proiektu horietara bideratzea eta, horietatik, beste kolektibo batzuen egoera hobetzera bideratutako ekintzak sortzea, horrela ekintza bakoitzak beste ekintza bat sor dezan eta komunitate gisa hazten joan dadin.



Gainera, nahi duten pertsonen edo enpresek zerga-onurak lor ditzakete dohaintza horiek errenta-aitorpenean desgrabatzean. Informazio gehiago eta parte hartzeko modua: <https://donaciones.com/>

Lanbidek 496.695€ eman ditu 2024ko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 496.695 euroko dirulaguntza eman dio Getxoko Udalarari, 2024ko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen deialdiaren barruan. Dirulaguntza hori, alde batetik, Getxoko enpresentzako kontratazioarako laguntzetara bideratuko da (134.195€), eta, bestetik, enplegua sustatzeko jardueretara, Lanbiden izena emanda dauden 29 langabe getxoztar kontratatuta (362.500€).

Diru-laguntzak

Laguntza hauek zuzenduta daude Getxon erroldatuta dauden eta Lanbiden enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda dauden langabeak kontratatu dituzten tokiko enpresei. Kontratuak 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasita egon behar dira. Mugagabeak eta lanaldi osoak edo lanaldi partzialekoak izan behar dute, gutxienez lanaldiaren %50ekoak. Aurten ere diruz lagunduko dira artisten eta ikus-kizun publikoetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakinako kontratuak (horien gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da; eta lanaldi osoak edo partzialekoak izan daitezke, gutxienez lanaldiaren %50ekoak).



Deialdi bakarra egingo da, eskabideak aurkezteko epe bakarra izango du: deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik (urriaren amaieran, ziur-ziur) 2024ko abenduaren 31ra arte. Eskabidea aurkezten den hurrengoaren arabera emango dira eskabideak, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago eta aurrekontu-kredituaren mugaraino.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/Rmcx3>

Kontratazioak

Enplegua sustatzera bideratu-

tako dirulaguntzak (362.500€) langabeen enplegarritasuna handitzea du helburu, haien kualifikazioa eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa indartuko dituen aldi baterako lan-esperientziaren bidez. Getxoko 29 langabe kontratatuko dira 27 udal-proiektutarako.

Hauek dira eskatutako profilak: 19 administrari; 1 web eta multimedia analista programatzaile eta/edo diseinatzaile grafiko eta multimedia; 1 telekomunikazioetako teknikari eta/edo telekomunikazio-ekipo eta -sistemen instalatzaile eta/edo sare-siste-

men administratzaile. Halaber, 4 erdi-mailako teknikari (1 enpresa-aholkulari, 1 aholkulari juridiko, 1 publizitateko eta/edo harreman publikoetako teknikari eta/edo kazetari, 1 eta gizarte-hezitzaile) eta 4 langile (1 eraikinen mantentzaile eta 3 margolari). Kontratu guztiek 6 hilabeteko iraupena izango dute eta lanaldiaren % 50ekoak izango dira, langileak izan ezik, horiek lanaldi osoarako kontratatuko baitira.

Informazioa: <https://labur.eus/2EveV>

Kontratazio horietarako hautagaiak Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako eskaintzaren bidez hautatuko dira. Urriaren 22an hasiko da parekatze eta hedapen bidezko eskaintzen kudeaketa, eta, beraz, interesdunek ezinbesteko baldintza izango dute egun horretan lanik gabe eta Lanbiden enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egotea. Gainera, ezinbesteko baldintza izango da lanposturako eskatzen den gutxienezko titulazioa eta/edo prestakuntza egiaztatzen duen agiria izatea eta Lanbideren curriculum vitaean jasota edukitzea, eskatutako okupazioan inskribatuta egotea eta Getxon erroldatuta egotea.

KIROLAK



Multikirolak denboraldiak 25 kirol modalitate eskainiko ditu

Hasi da Multikirolak, Getxo Kirolak elkarteak udalerriko kirol klubuen eta ikastetxeen laguntzarekin antolatutako eskola kirolen programaren denboraldia. Ekainera arte, modalitate ezberdinetako 25 topaketa eskainiko dira, Lehen Hezkuntzako ikasle getxotarren komunitateari zuzenduta (bai herriko ikastetxetan ikasten dutenei, bai beste udalerrri batzuetako ikastetxetan ikasten dutenei).

Kirol-klubuen eta ikastetxeen inplikazioari esker, iaz 1.629 ikasle parte hartu zuten hainbat jardue-

ratan. Interesa dutenek ikastetxe bakoitzean kontsulta dezakete edo getxomultikirolak@gmail.com helbide elektronikoaren bidez.



Belardi berria Bolue, Gobela eta Fadurako erabilera anitzeko zelaietan

Getxo Kirolakek udako hilabeteak aprobetxatu ditu Bolue eta Gobela futbol zelaietako belar artifiziala berritzeko, baita Fa-

durako erabilera anitzeko zelaiarena ere. Lanek 1,6 milioi euro inguruko kostua izan dute, eta kirol-klubekin koordinatu dira, denboraldiaren hasieran ahalik eta eragin txikiena izan zezaten. Getxo Kirolak inbertsioaz gain, Bolue 1 eta 2 aldagelak eraberritzeko eta Bolue 1 belar artifiziala berritzeko Aurrekontu Parte-hartzaileen testuinguruan Udalak finantzatutako beste 550.000 euro ere sartzen dira lan horietan. 11 futbol-taldetan bildutako 1.700 kirolaririk baino gehiagok dituzte dagoeneko instalazioak

LABURRAK

* **EKP Women's Cup.** 15 emakume tripulazio Abrara itzuliko dira asteburu honetan (hilak 12 eta 13). Bosgarren urtez jarraian eta kanporaketa formatuan, J80 klasean itzuliko da proba, gainera Iberdrola Ligako final handi bezala. Abrakoltsas Klubak antolatzen du proba.

* **XLII. Mendizale Beteranoen Ibilaldia.** Etorkizuna Klubak Euskal Mendizale Federazioaren Mendizale Beteranoen Marxa antolatu du aurten. Ibilaldia hilaren 20an, igandean, izango da, eta Biotz Alai plazan hasi eta amaituko da. Informazioa: <https://labur.eus/SMJh1> Itxartu Taldeak ere XLI. Ibilaldi Neurtua ospatuko du hilaren 12an. Informazioa: <https://labur.eus/XNh16>

Udal talde politikoaren iritzia



TURISMO JASANGARRIA GETXON

Getxoko balio natural, sozial eta kulturalak zaindu eta errespetatzen dituelako diogu gure turismoa jasangarria dela, horiek baitira bisitatzen gaituztenek nabarmentzen dituzten gure udalerriko ezaugarriak. Getxo hiri atsegina da bisitariarentzat; aukeren sortzailea da ere enpresa-ekimenetan lanean daudeneztat edo esparru horretan lan egin nahi duteneztat, bai eta enplegu-sortzailea ere turismo jasangarriaren alorrean.

Getxoko EAJ-PNVren hauteskundeetako konpromisoaren baitan, duela urtebete eta erdi hauxe esan genuen: "Getxo, aukeren sortzailea; turismo jasangarriko industria jorratzen du, zeina ingurumena errespetatzen baitu eta kalitatezkoa baita, eta Kirol Portuak gizarte-, kirol- eta aisialdi-espazio gisa duen balioa handitu du, bertako instalazioak berrituz". Aurrera egiten duen proposamena da, jasangarria den eta ingurumena errespetatzen duen



kalitatezko turismo-industriaren aldeko apustua egiten duena, kirolaren, artearen, kulturaren, arkitekturaren eta naturaren esparruetan gure ondareak duen garrantzia nabarmenduko duten ekimenen bitartez. Ildo horretatik, aipatzekoa da turismo adimendunaren garapena. Helmuga turistikoaren lehiakortasuna nahiz biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea helburu

duen programa dugu; horretarako, bost jarduketa-eremu jorratuko dira: gobernantza, berrikuntza, teknologia, jasangarritasuna eta irisgarritasuna. Konpromiso horiek betetzen gabiltza. Izan ere, turismoaren gaineko demagogia modan dagoela dirudi, baina gero denok gara turistak eta udatiarrak. Horregatik guztiagatik, Getxoko EAJ-PNV

alderdiak bere hitza betetzen duelako, gure bizimodura egokitutako turismo jasangarriaren alde lan egiten jarraitzen dugu.

Beste bi adibide argi ditugu. Duela egun batzuk, iraileko osoko bilkuran, onetsi genuen Portu Zaharrean etxebizitza turistikoak ezartzeko muga, bai eta gure udalerriko gainerako guneeetan ezartzeko araudi zorrotza ere. Orain arte ezagutu ez dugun turismo-motak ez ditzan kaltetu Getxoko eguneroko bizitza eta bizi-kalitatea zoragarria.

Beste adibidea ingurumen-jasangarritasunari lotuta dago: turismo-ostatuaren ingurumen-inpaktua neurtzeko programan aitzindari da Getxo. Karbono-aztarnaren duen eragina neurtzen dugu eta, ondoren, eremu horretan berotegi-efektuko gasen emisioak mugatuko dituzten tresnak eta sistemak gaitu.

Getxoko EAJ-PNV: zorrotasuna, erantzukizuna eta konpromisoak betetzea.




GETXON BESTE HAMAR UDALTZAIN HASIKO DIRA LANEAN

Getxo udalerriko segurtasuna geroz eta kezka handiagoa da getxoztarrentzat, udalerriko eremu publikoetan (esate baterako, kiroldegietan eta saltokietan) nahiz hainbat auzotan handitu delako lapurreta-kopurua. Egoera horri erantzuteko asmoz eta aurtengo Getxoko aurrekontu orokorretarako **udal-gobernuarekin (EAJ/PSE) lortutako akordioaren ondorioz, udalak onetsi du beste hamar udaltzain kontratatzea.**

Gehikuntza hori dela-eta, **txanda bakoitzean beste patruila bat egon ahal-ko da**; horiek horrela, agente gehiago

egongo dira kaleetan eta, hortaz, herriarrak seguruago sentituko dira. Horren erakusgarri dira uda honetan izandako emaitza onak. Nolanahi ere, hobekuntza horregatik pozten garen arren, uste dugu neurri gehiago hartu behar direla: besteak beste, **Areetan eta Andra Marin auzoko polizia-etxeak jartzea, eta agenteei taser-pistolak eta zaintza-kamera pertsonalak ematea.** Inolako zalantzarik gabe, segurtasun-eremu aurre egiteko modua zabalagoa eta zuzenagoa izan dadin dugun konpromisoaren baitan sartzen dira ekimen horiek.



ehbildu

EH-BILDU: FISKALTZARA JO DUGU IRURAK BAT AUZIAGATIK

EH Bilduk fiskaltzara jotzea erabaki du, Irurak Bat eraistearekin lotutako dokumentazio guztia azter dezan, ez-zilegatasun penalik izan den zehaztu ahal izateko. Iraileko osoko bilkuran planteatu genuen Udala bera izatea fiskaltzan aurkeztuko zena, baina EAJk, PPK eta PSEk ez zuten proposamena babestu. Era berean, EH Bilduk ere eskaera egin du Elkarrekin Podemosekin batera, ez ohiko batzorde bat egin dezaten eraistea aztertzeko. Batzorde horretan inplikaturako alde guztiak parte hartu beharko luke: alderdi asko argitzeko daudela uste

dugu, eta gai honen amaieraraino iritsi nahi dugu.

Ez dugu etsiko: larria da Irurak Bat ekimenarekin gertatu dena, baina zoritxarrez ez da kasu isolatua. Azken urteotan eraikin historiko ugari eraitsi dira gure herrian, eta etorkizunean gehiago izan litezke, HAPOk planteatzen duena kontuan hartuta. Zentzugabekeria hori gelditu behar dugu: espekulazioa geldiarazi eta gure historia eta nortasuna balioetsi.

Planak Getxo osoan eraiste gehiago au-

rreikusten ditu, eta EAJ-PSEren Gobernu Taldeak eta PPK behin-behinean onartu dute. Deigarria da alderdi horren jarraera, legegintzaldi honetako Gobernu Taldearen makulua baita. HAPoren aldeko botoari esker, eraisketek jarraituko dute (luxuzko etxebizitzak Senerren, luxuzko hotela Lezama Legizamonen...). Azken osoko bilkuran, PPK EH Bilduri leporatu zion ikerketa batzorde bat ez erraztea, eta, horrela, ezkatatu egin zuen gaiarekiko duen interes falta, harik eta birala egin zen arte; izan ere, mozioa erregistratzeko epea pasatu zitzaion, eta "urgentziatzko"

moduan makillatu zuten. Hori agerian geratu zen EH Bilduren mozioa babestu ez zutenean gertatutakoa argitzeko fiskaltzara jotzea eskatzen genuenean. Ezer berririk ez osoko bilkuran, benetan deigarria baita PP malabarismoak egiten ikustea EH Bilduren proposamen bakar bat ere ez babesteko. Azken osoko bilkuran ikusi genituen hainbat adibide: Alango auzoa hobetzearekin, etxebizitzaren arazoa konpontzen saiatzearekin edo Getxoko ondare historikoa babestearekin. Bat bera ere ez zuen babestu PPK. Gu gurera, lanean jarraituko dugu.



INKLUSIBOA, KALITATEZKOA ETA IRISGARRIA DEN HEZKUNTZAREKIKO KONPROMISOA

Getxoko PSE-EE taldeko kideok uste dugu hezkuntza eta prestakuntza oinarrizko eskubideak direla eta **denontzat irisgarri** egon behar direla; hori dela-eta, berretsi nahi dugu horiek jasotzeko **ekitatearekiko nahiz berdintasunarekiko** dugun konpromisoa. Getxoko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak, zeina PSE-EEK kudeatzen baitu, **157.500 euro bideratzen ditu 2024-2025 ikasturteko hezkuntza-laguntzetara.** Getxoko familiek, baldin eta ezarritako betekizunak betetzen badituzte, 400 eurorainoko laguntzak eskatu ahal-ko dituzte **beren seme-alaben eskola-gastuen zati bat** ordaintzeko, Haur Hezkuntzatik DBHra. Neurri horren

helburua da zama ekonomikoa arintzea eta **Getxoko haur guztiak hezkuntzara sarbide ekitatiboa dutela bermatzea**; izan ere, uste dugu baliabide ekonomikorik ez izateak ez duela hezkuntzarako sarbidea oztopatu behar, funtsezkoa baita. Beste alde batetik, Romoko ikastetxe publikoan haur-eskola berria zabaltzea sustatu dugu. ikastetxe horretan **34 plaza inguru eskainiko dira 0 eta 2 urte arteko haurrentzat**; horren bitartez, Algortan lehendik dagoena osatuko da eta Getxoko lehen haurtzaroi arreta emateko gaitasuna handituko da, guztira 115 plaza baino gehiago egongo baitira.



JAIOTZAREN INGURUKO DOLUA

Urriko osoko bilkuran, Elkarrekin Podemos taldeak, haurdunaldiko, jaiotza inguruko eta jaioberrien dolua oroitzeko hilabetea dela-eta, mozio bat aurkeztuko du udal-hilerrian espazio bat gorde dadin horrelako egoerak pairatzen dituzten familiek oroitzeko, babestuta sentitzeko eta mina erreparatzeko toki bat izan dezaten, zendutako haurrak oroitzeko toki, alegia.